

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



*Euskaltzainen
bilkurarekin
amaiera ederra
eman zaio
Muxikaren
mendeurrenari*

2006ko maiatzaren 5a, 67 zenbakia - Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

www.aiurri.com

EUSKALTZAINEN BILKURA URNIETAN

Giro ederrean amaitu dira Andoainen Santakruzak

Pailazoen emanaldiarekin eta sardin jatearekin amaitu dira Santakruzak.

Haurrek pregoia irakurtzen ari zireneko giroari eutsi zion eguraldiak eta, zer esanik ez, jaia kalean egiteko eta parte hartzea sustatzeko aukerak biderkatu egiten dira eguzkia indartsu agertzen denean. **Peña Santakruz**-Gurutze Santua elkartearen santakruzak izan dira aurtengoak. Dagoeneko elkartearen sorreraren 50. urteurrena ospatzen hasita daude, abendura bitarte albiste ugari emango dituzte.

Estrainekoz egin den kantu kalejirak partaide kopuru txukuna bildu zuen. Sagardo dastaketan edota goitibehera jaitsieran ere ehunka herritar bildu zen. Gauez, taberna inguruan jende gutxiago sumatu dela esaten zuten gremiokideek. Parrandan aritu zirenak, bederen, goizalderarte ibili ziren ostiraletik igandera. Koadrilen egunean giro polita sortu zen, maiatzaren lehenera asko eta asko nekeak jota iritsi baziren ere.



Ikurriaren jaitsiera, pailazoen emanaldia, perkusio kalejira eta sardin jatea Santakruzetako azken egunean. © Xabier Ubeda

Santa Krutz egunean haurrek arratsalde pasa ederra izan zuten Zumea plazan zein Txistoki pasealekuko jolaslekuan.

URNIETARRAK PARTAIDE

Aurtengo jaietan nabarmendu dira arrazoi ezberdinak direla medio. Urnietako sagardo

ekoizleak andoaindarraren gus-tuko izan dira aurtun, Oianume eta Lizeaga sagardotegiak izan ziren lehenak igandean egin zen dastaketan.

Tradizio handia duen goitibehera jaitsieran urnietar asko izan zen partaideen artean. Denera, Goiburutik behera hogeita hamar partaide irten zen kategoria ezberdinetan.

Kirolarekin jarraituz, herri krosean partaidetza handia izan zen. Gizonezkoak ziren nagusi, oso emakume gutxi irten da aurtengo edizioan.

Andoaingo jairik herrikoienetan aparteko ezbeharririk gabe amaitu dira. Sanjuanetarako gutxi geratzen da.

(4. orrialdean jarraitzen du)



Egape ikastolako eraikin berriaren auzia

Udala, Egape eta Eusko Jaurilaritza eraikinaren egoeraz jabetzen dira eta guztiek beharrezkotzat jotzen dute Egapek eraikin berria izatea, baina errealitatean, urte dezente daramatza proiektuak ez aurrera ez atzera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) zikloari dagokion eraikin berria urte luzeetan, Egape ikastolako eta guraso elkarteek eskatu izan dutena da. Aspalditik, Azkorteko eraikina egoera tamalgarrian dago. Luze eta mantso doa auzia.

(2. orrialdean jarraitzen du)

Urnietak

■ Egape ikastolako eraikina, erreportajea.

2. or.

Andoain

■ Santakruzak irudi bidez.
■ Udalaren osoko batzarraldia.

4. or.
4. or.

InfoAiurri

■ Jon Unanue eta Joseba Lizeaga urnietarren iritzia.

6. or.

Agenda

■ Datozen egunotako hitzordurik interesgarrienak.

7. or.



ESKAINITZA

902 345 125
clientes@giauto.es

Hilero hilero zure Opela zaintzen dugu

-24%
Olioak

-10%
Filtro

-10%
Haizetako Garbigailuak

Giauto * Maiatzaren 1etik 31ra bitartean

ELGOIBAR · BERGARA · ARRASATE · EIBAR · ANOETA · OLABERRIA




-15%
Pneumatikoak

www.giauto.es

IKASTOLAKO ORDEZKARIAK UDALEKO ETA HEZKUNTZA LURRALDE ORDEZKARITZAKO ARDURADUNEKIN KONPONDU EZINIK

Egape, DBHrako eraikin berriaren zain...

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) zikloari dagokion eraikin berria. Urte luzeetan, Egape ikastolak eta guraso elkarteek eskatu izan dutena da. Aspalditik, Azkorteke eraikina egoera tamalgarrian dago.

Datorren astean Egapeko ordezkariak Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako delegatuarekin biltzekoak dira. Luze eta mantso doa auzia.

Zein da zure iritzia: aiurri@topagunea.com

Manu Marias DBHko zuzendariaren hitzetan, "DBHko eskola batek legalki gutxieneko batzuk eskatzen ditu, baina eraikin horrek zenbait arlotan ez ditu horiek betetzen". Egungo eraikina ez dator bat bertako ikasle eta langileen beharrek. "Egungo eraikina ekipamendu aldetik ez da batere funtzionala" adierazi du Mariasek.

Egoera horren aurrean, ikastolako ordezkariak urteak daramatza Udaleko eta Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako arduradunekin biltzen. Denak eraikinaren egoeraz jabetzen dira eta guztiek beharrezkotzat jotzen dute Egape eraikin berria izatea, baina errealitatean, urte dezente daramatza proiektuak ez aurrera ez atzera.

UDALA ETA EUSKO JAURLARITZA

Horren haritik, Mariasek gogoratzen duenez, "pilota Udalaren teilatuan dago". Hain zuzen, proiektua errealitate bilakatzeke, lehenik, Udalak lursailak erosi behar ditu. Gero, Eusko Jaurlaritzari ikastola be-



Egape ikastolaren aspaldiko eskakizuna da eraikin berria.

© Xabier Ubeda

ria eraikitzeke baimena eskatu eta lur eremu hori haren esku utzi behar du. Azkenik, Jaurlaritzak berak onetsi behar du gune hori. Hitz gutxitan, Udalak eta Eusko Jaurlaritzak adostasun batera ailegatzeak soilik ahalbidetu dezake proiektua.

Baina egun, Udal barruan ere adostasunik ez da. Ikasto-

lan kezkatuta daude, horren ondorioak urnietarrek jasango baitituzte. "Honetan guztian, galtzaile nagusia Urnietako herria da" adierazi du Mariasek. Negoziatu beharra dute Udaleko alderdiek alderdi batek ere ez baitu gehiengo garbirik. Mariasen hitzetan, "hor daude arazoak". Era berean, aspaldiko eskaera oinarritzko beharra

izanda, aurrera pausoak ematera dei egiten du Mariasek: "Albora ditzatela haien artean zilegizkoak izan daitezkeen alderdikeriak eta helburu nagusia har dezatela kontuan. Azken batean, denok irabaz dezagun".

Datorren astean Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzako delegatuarekin biltzekoak dira.

"Egungo eraikina ekipamendu aldetik ez da batere funtzionala"

Manu Marias

ETENAK ETEN



2001/4/21

Udalbatzak Berrasoetako lur saila Eusko Jaurlaritzaren esku uztea erabakitzen du. Jaurlaritzaren ezetza.

2003

Egape eta guraso elkarten sinadura bilketa.

2004

Adituen Batzordearen sorrera.

2005

Udalak, arau subsidiarioen barne, 5000 metro karratuko lur eremua gordetzea erabakitzen du.

Adituen batzordea sortu zen baina aurrerapausurik ez da eman

Urteak aurrera joan eta auziaren etorkizuna ez dago oso garbi

2001eko apirilean ospatu zen ezohiko udalbatzan, Berrasoetan kokatutako lurak Eusko Jaurlaritzari uztea erabaki zen. Udalak leku egokitzen jotzen zuten, Udal Kirol Instalazioen ondoan baitzegoen, zonalde berdeek inguratzen zutela. Lanak 2002. urtean hasi eta 2004an amaitzea aurreikusten zen. Baina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Lurral-

de Ordezkaritzak lekua guztiz desegokitzen jo zuten, lur eremu aldapsua baitzen.

Prozesuak aurrera egiten ez zuela ikusita, 2003an Egape ikastolak eta Aballarri eta Azkorte guraso elkarteek gutun bateratua kaleratu zuten. DBHko eraikina egoera tamalgarrian zegoela eta espazio eta instalazioak eskasak zirela zio-

ten. Urnietako Udalarri, ahal bezain azkar lurak erostea eskatzen zioten. Behar hori azpimarratzeko, bestalde, herriko errealitate soziala aintzakotzat hartzen zuten: azken urteetan, Urnietako jaiotza-tasa etengabe igo izana. Hala, egoera bere horretan gehiagi luzatzen ari zela ikusita, sinadurak biltzeari ekin zioten. 1180 herritarrek eskaera horiekin bat egin

zuten eta udaletxean aurkeztu ziren. Horiek ere bere horretan geratu ziren.

Iaz, Udala arau subsidiario berriak egiten hastekoa zenez, arau horien barne eraikin berria egiteko lurak erreserbatuko zituela hitz eman zuten. Hori bai, prozesuak behar bezala aurrera egin arren, Udalak urte dezente itxaron beharko zela zioen.

ADITUEN BATZORDEA

Adituen Batzorde bat ere sortu zen baina aurrerapausurik ere ez zen eman. Egungo eraikina bota eta berria egitea ere proposatu izan da.

Baina egungo eraikina Udalaren lurretan kokatzen denez, Udalak lehendik finkatutako eraikinak ezin zirela ukitu adierazi izan du.

Nazioarteko hainbat herritan erabiltzen dira Urnietako aizkorak

Joxe Ramon Jauregi, aizkoragilea



Urnietan egiten diren aizkorak nazioartean erabiltzen dira.

Joxe Ramonek, egun desagertzen ari den ogibidea hartu zuen oinordetzan: aizkora egilearena. Afizionatua ofizioan. Urnietako bere lan-tokian elkarriketatu dugu.

Nolatan hasi zinen ogibide horretan?

Joxe Ramon Jauregi: Hirugarren belaunaldikoa naiz. Duela 82 urte nire aitona Amezketatik Urnietara erremontari gisa lan egitera etorri zen. Aizkoraz gain, baserrietako tresna ugari erabiltzen zituen: segak, ferraketak... Gerora, baserriarren traktoreek idiak ordezkatu dituzte; ondorioz, ferraketak ere desagertzen doaz. Duela 30 urte, aitak ferratzeari utzi zion. Geroztik, soilik aizkorak erabiltzen ditugu.

Aizkorak ekoizteko moduak aldatu dira?

JRJ: Ikaragarri, eta hobera. Lehen, lana oso gogorra zen; orain, askoz errazagoa. Eskulana, ekinez ikasten da. 30 urte daramatzat lanbide honetan. Aizkora mundua ez dago zientifikoki aztertua; betidanik, autodidaktak izan gara.

Sektoreko langile bakarra zara Euskal Herrian?

JRJ: Bai. Espainia eta Europa osoan ez dago inor. Lehen gehiago ginen. Egun, jarduera horietaz lantegiak arduratzen dira. Urte gutxitan sektorea zenbat aldatu den ezin daiteke sinetsi. Egun, garai batean bezala egin beharko banu lan, ogibidea utzi beharko nuke. Lan gogorra da, eta ikastea, oso zaila.

Zergatik ez daude langile gehiago?

JRJ: Bi edo hiru ferratzaile izaten ziren lehen herri guztietan. Idiak desagertzearekin bat, ferratzaileak desagertu ziren. Lehen, aizkolaritzan jende asko aritzen zen, ikatza egiten, basogintzan... Egun, motozerrak daude eta aizkora ez da behar. Merkatuak agintzen du. Aizkora asko salduko balira, egile gehiago egongo lirake. Aizkora gutxi saltzen da, niretzat, ordea, nahikoa. Langile bakarra naiz eta lan nahikoa dut.

Nola ikusten duzu merkatu horren etorkizuna?

JRJ: Nik ondo ikusten dut. Makineriak goia jo duela uste dut. Jendeak, egun, lanabes onak nahi izaten ditu, kalitatezkoak. Merkatua txikia da, baina finkoa. Atzerritik dei-

Aizkora mundua ez dago zientifikoki aztertua; betidanik, autodidaktak izan gara

tzen didate aizkorak egiteko eskatuz. Kanpora joanda, merkatua bada. Bestalde, semeari irakatsi nahi nioke; gero zer egin berak erabaki dezala. Eskulanak gogotsu hartu behar dira. Atseginekoa da, zure eskuz egindako lana gustura egin eta gero, jendeak lan hori baloratzea.

Bertakoak, atzerritarak... Bezero faltarik ez?

JRJ: Aizkorak normalean hemen, Espainian eta Frantzia saltzen ditut. Apustu aizkora, berezi samarra denez, Europara edota Ameriketara bidaltzeko eskariak izaten ditut. Aizkora txikiak, hiltegiatik eta jatetxeetatik eskatzen dizkidade. Hala ere, gehienak burdindegietan saltzen ditut.

LANTZEN DITUEN AIZKORAK

Argazkian, ezker-eskuin:

1-Puntadun aizkora: arin samarra, leku askotan egiten da. Adarrak mozteko eta makilak egiteko erabiltzen da.

2-Euskal aizkora: handiena, egurren mozteko erabilia. Euskal Herrian bakarrik erabiltzen da. Punta borobildua du; buru berezi samarrekoa da.

3-Altzairu oxidagaitzeko aizkora: txikiena, haragia mozteko erabilia. Lehen, altzairu normala erabiltzen zen. Baina orain, haragia garbi mantentzeko aizkorak oxidagaitza izan behar du. Plastikozko kirtena du.

4-Apustu aizkora: kirol munduan erabilia. Jarduera horietan denborak garrantzi handia duenez, aizkora egiterakoan lanabesa egurrean nola sartu eta ateratzen den oso kontuan hartu behar da.



Euskaltzaindiaren bilkura Urnietan



Jose Antonio Mujika eta Mikel Atxaga Euskaltzaindiaren bilkuran. © X.Ubeda

Apirila Plazido Muxikaren hilabetea izan da Urnietan. Amaiera bikaina izan zuen Urnietako euskaltzalearen mendeurrena ospatzeko ekitaldi sortak. Euskaltzaindia euskararen instituzio gorena Urnietan bildu zen. Euskaltzainen aurrean Jose Antonio Mujika

Plazidoren ilobak -euskaltzain urgazlea ere bada- hitzaldi atsegina eskaini zuen.

Amaierako ekitaldian mendeurrena antolatzen zerikusia izan dutenek omenaldi xumea jaso zuten. Besteak beste, **Mikel Atxaga**, **Jose Mari Bardaji** eta herriko hainbat eragile.

SANTA KRUTZ EGUN EDERRA



Giro ezin hobean ospatu zen asteazkenean Santa Krutz eguna. Eguraldiak lagunduta, asko izan ziren autobusez edo oinez Azkorte ermitara igo zirenak. Meza Nagusiak eman zion hasiera ospakizunari. Jarraian, taula gainean, Patxi Etxeberria eta Joxe Agirre bertsolariak aritu ziren. Urtzi eta Iraitz Telleria anaiek eta Joseba Ostolazak harria jasotzen aritu ziren. Sabela gozatzeko ohiko hamaiketako ere ez zen falta izan. Tradizio luzeko ohiturak datorren urteko maiatzaren 3an izango du berriro hitzordua.



Eusko Jaurilaritza

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

EGUNEZ EGINIKO EKITALDIETAN HERRITARREN PARTE HARTZEA NABARMENA IZAN DA

Akabo Santakruzak, berriro lanera

Txotx denboraldia amaituta, jaien denboraldiari eman zaio Santa-kruzetzan. Hemendik aurrera jaiak perretxikoak bezala irtengo dira eskualdeko eta inguruko herri eta auzoetan.

Datorren ostiralean haur eta gaztetxoek argazki gehiago argitaratu-ko da Aiurri hamaboskariko *Aiurri Txiki* atalean.

Argazki erreportajea: Xabier Ubeda



Haurrak jala noiz hasiko zain zeude Zumean.



Hunkiturik agertu zen aurtengo pregollaria.



Koadrilen egunean egoera xebebreak aurki daitezke.



Santakruzak iragartzeko unea.



Emakume gutxi aurtengo krosean.



Irri eta jolasa, jaiak irauten duen bitartean.



Jai giro ederrean igaro zuten arratsaldeko koadrilen eguneko partaideak.



Danborrada, tradizio handikoa herrian.

Udalaren osoko batzarraldiaren kronika



Kantu kalejira, ekimen berria Santakruzetzan. Txalotzeko modukoa, datorren urtean ere bai!



Sagardo dastaketan Urnieta garaila.



Taldea, sagardoaren osagarri bikaina.



Apirilaren 28ko batzarraldiaren ostean ireki zen oinezkoentzat.

Sorabilla-Errotagain auzoko bizilagunak izan ziren berriro ere batzarraldiko protagonista. Batzarraldia amaituta hartu zuten hitza auzoko bizilagunek. Denbora luzea daramate auzo eta herrigunea banatzen dituen errepidean oinezkoentzako pasabide egoki bat eskatuz eta erantzun baten bila hurbildu ziren udaletxera. Eztabaida luze baten ondoren, akordio batera iritsi ziren: Foru Aldun-

diko Trafiko saileko arduraduneri, zebra bidea jartzeko debekua idatziz jar dezatela eskatuko die Udalak.

GAI GEHIAGO

Besteak beste, gai hauek lan- du zituzten batzarraldian: Galardi haurtzaindegiko ta- sa berriak, tabakoaren aur- kaka legea gune publikoetan ezartzeko modua edota Andoainen errehabilitazio gune bat eraikitzeko aukera.

Ikasturte bukaerako bertsolaritza jaialdia

ZATOZ, ANDOAINGO GAZTEEN BERTSOAK ENTZUTERA!

Noiz: maiatzaren 9an, arratsaldeko 6:00etan
Non: Bastero Kulturgunean (auditorioan)

Oharra: Sarrerarik ez da ordaindu behar baina beharrezkoa da gonbidapena. Jaialdi egunean bertan 5:30etik aurrera Basteroko takilan eskuratu ahal izango dira gonbidapenak.

Antolatzaileak:



Euskal Herriko
Bertsolaritza Elkarte



LS
B*
LEKARREN BERTSOZALE
ANDOAIN



AITA LABRAMENDI IKASTOLA



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalizatzaroko Lantaila



JOXEBA LIZEAGA • URNIETA

Marmota eguna

Ez naiz ni izango zalantzan jarriko duena, martxoaren 22an eta ondorengo egunetan Euskal Herrian bizitu genuen orgasmo kolektiboaren benetakotasuna. Badirudi, ordea, hezurretaraino kutsatuta gauzkan prentsaren (berezi telebista) sentsazionalismoak, titular potoloek, eragin dezentekoa izan zutela, eta geroztik ere, gai honetaz, plazan baino teleplazan gehiago hitz egiten dela. Oraindik gaitz gertatzen baitzait imajinatzea zer neurritan izan zen egun historikoa, zenbateko garrantzia izan duen, zenbat korapilo askatzeko balioko duen, hori guztia, geroak argitu beharko digu.

Herritarrok, behintzat, politikariei adierazi beharko diegu, orain bost duroko hitzekin ez gaitzuztela loriatuko, gutxienez euro batekoak behar ditugula. Aste bat etxetik urrun igaro ondoren, itzulitakoan, berriro goizean hemen esnatutakoan, lehendik ere askok konpartitzen dugun zerbaitetaz jabetu bainaiz: euskal politikariek, oro har, aspergarriak direla, ardiak ere lokartzeko modukoak. Dozenaka diskurtso eta prentsaurreko, (*y lo que te rondaré, morena!*) beti jende berdinak emanak, beti gauza berdinak esateko...

Gogoan izango duzue "Atrapado en el tiempo" pelikulan, nola Estatu Batuetako Pensilvanian dagoen Punxsutawney herrixkan, Bill Murray aktorearentzat, beti otsailaren 2an argitzen zela eguna. Mende bat baino

gehiago da, bertan, egun horretan "Marmota eguna" ospatzen dutela. Tradizioaren arabera, urte horretan aukeratutako marmota, negua igartzeko erabili duen zulotik ateratzean, bere itzalik ikusten ez badu, goibel dagoelako, negua berehalakoa bukatuko da. Aldiz, egun eguzkitsua egokitu delako, itzala begi-bistakoa bada, neguak sei asteko luzapena izango du. Gutxienez, han, erabakia berehalakoa da: hemen oraindik ez genukeen jakingo, marmota, eratuko omen diren mahai horietako batetan eseriko litzatekeen ala ez,

are eta gutxiago erabakia zeren arabera hartuko zukeen.

Pelikulan, denbora gelditze horrek Murrayri, Andie MacDowell ezagutu eta seduzitzeko balio izan zion, hemen hasierako zurrumbilo hura igaro ondoren, jadanik sumatzen den geldialdia, seguruenik, bake bidean urratsak eman ordez, datozen urteko hauteskundeak prestatzeko erabiliko dutela dirudi, elektoralismoa egiteko. Zilegia izango da, baina, nazkatuta gaude, eta orain erantzunak behar ditugu. Politika egiteko modu berria behar dugu. Gai

potoloak ahaztu gabe eta herrian bertan geratuz, badugu gauzak egiteko modua aldatzeko aukera ederra, eskuartean baititugu, orain arte soilik argazkiak egiteko erabili izan den Tokiko Agenda 21a. Eta Arau Subsidiario berriak, edo saihebidia... Urrietako hirigintzan azken hogeita hamar hauetan egin diren hanka-sartzeen errua ere, ezingo diogu bada Francori bota?. Euskara suspertzeko ere, orain arte egin ez den zerbait egin beharko da...

Eta herritarrok, zer egin dezakegu? Orain erdiguneak, bilguneak behar ditugu, hemen bakoitza geure trintxeran bizitu gara, gu bezala pentsatzen ez duenari entzun ere egin gabe. Maiz, haize-errota besterik ez zena, erraldoiarekin nahasiz.

Heldu da beste entzuteko ordua, bakoitza den bezalakoa agertuz, ez da preziso jende guztiaren gustukoa izatea, inondik ere ez!, baina hobetoxeago ezagutzeak, paseoan dabiltzan topiko gaiztoak uxatzen eta, batez ere, batzen gaituena baloreen jartzen lagunduko ligu.

Mahai bat, bi mahai, hiru mahai, mahai handiak, mahai txikiak... Oraingo geldialditik esnatu eta noizbait eratzten badira, herritarrok ere bertan gure tokitxoa izan beharko dugu. Nik, badaezpada, prestatzen asteko asmoa hartu dut, eserlekurik gabe harrapa ez nazaten: Ikeara joatea erabaki dut, behiak jezteko aulki bat erostera.

Euskal politikariak aspergarriak dira, ardiak ere lokartzeko modukoak

Gai potoloak ahaztu gabe eta herrian bertan geratuz, badugu gauzak egiteko modua aldatzeko aukera ederra



JON UNANUE • URNIETA

Maite kuttuna

Euskal Telebistari, ETB-ren lehen kateari bereziago, gauza asko barkatu beharrean izan gara urte luzez, baina oraintxe *bis-tan* dugunari arazo ongi larria deritzot. Eta arazoa ez da gaur-gaurkoa, baina orain hamar urte ulergarriagoa izan zitekeen, ETB orain 25 urte jaio zen telebista izanik: bertako arduradunak gauza dira telebista horretan edozer gauza programatzeko, lotsa eta kezka handirik gabe, nonbait. Gaia ez da berria, eta kritikak eta horiei erantzuteko arrazoiak asko izan direnez, laburbildu beharrean esan dezagun ulergarri izan zitekeela lehen urteetan euskaraz guztia eginkizun zegoen telebista esparru horretan hutsuneak nola edo hala bete beharra, filmerik ez zegoelako bikoiztuta, bikoizlerik ez zegoelako, ekoizpen-etxerik ez zegoelako, ezta aurkezlerik ere, etab...

Baina 25 urte horietan ez dugu behar hainbat aurrera egin, eta 24 orduko programazioa betetzea erronka handia –eta garestia– den arren, ez dugu aurreraterik izan behar eta ahal genukeen adina, berriro diot, ahal genukeen adina. Gurea telebista txikia da, ikusentzule kopuru txiki batentzat egindakoa, diruiturriak ETB2 gaztelebistaekin banatu behar dituen, eta hizkuntz gutxiengotu batek bere ingurumarian dituen arazo guztiei aurre egin behar diena. Horrek guztiak ezin du zuritu, baina, 25 urte hauetan, bertan izan den lanmolde eta jokabide ugari. Kezkatzekoa da, esate baterako, ikustea urtea joan urtea etorri telebista aurrerako batere gaitasunik eta iaioitasunik ez duten aurkezleak hor, ETB1-ean, *betikotu* zaizkigula, eta horrek zer pentsaturik ematen du, Jonhy Fontanak *El Padrino*-n bezala ez ote duten ogibideaz kanpoko babesik jaso izan –ez hain bortitza, nolana ere–.

Penagarria da ikustea Xabier Euskitze bezalako profesional bat bere burua guztiz erretzen –edo hobe esan ikuslearen begi-belarriak–, kateko programazioan ia etengabe azaldu beharraz azken urteetan, pilota partiduetan

ez bada, *Sorginen laratza*-n, albistegietan, bertsolari, kantari, orain *Kalakan*, etab., eta eskerrak, hala ere, *Wazemank*-eko koadrilak mesedea egin dion bere irudia apur bat freskatzen. Egia da, bestalde, kontratupeko profesionalak ezin direla nolana ezkutatu, hortik sortzen direla gerora TVE-ri sortu zaizkion langile-hondar edo soberakinak, inorako ez daudenak enpresan bueltaka.

Euskal Telebistan gauza ongi txukunak egin dira, baina baita zuloak estali behar horretan gehiegikeriak noiznahi


Eta euskarazko kate bakarra daukagu, bere arazo horiekin guztiekin. Eta kate gehiago behar dugu, eskualde edo, ahal delarik, herrialdeetakoak.

Etxean ditugun haurrak direla-eta, kezka berria sortu zitzaidan horiek irensten duten programazioa neroni irensten hasi nintzenean. Gauza ongi txukunak egin dira, baina baita zuloak estali behar horretan gehiegikeriak noiznahi. Nik pentsatu nahi dut –eta hala sinistu nahi– *Heidi* lau aldiz jarraian eta atalak nahasiz programatzen duenak ez duela arduragabeke-riaz edo utzikieriaz egiten, larunbat goiz batean *Marco*-ren historia ia erdia ematen duenak bere eskuz besteko arazoak dituela programatzeko, ekonomikoak agian, merkatukoak, edo azken orduko ezustekoren bat... Baina gehiegitan gertatzen da.

Hain kirolzale ez garenak nazka-nazka eginda gaude ere ETB1 kirolen katea izateaz, eta eskerrak Wazemankek behintzat telebistaz gozatzeko aukera ematen digun kate horretan bertan, ekoizpen ongi txukuna eginez.

Baina azkenak bereziki, *Maite Kuttuna* izeneko telesailak, zur eta lur utzi nau, haur programazioaren barruan eskaintzen duten telesail txatxua, haurrak ongi gustora ikusten dutena gainera, auskalo nongo telebista edo ekoizleri eresia, haurrak guztiz erageltzeko eta erabat arbuiagarri diren jokabideetan trebatzeko bitartekoa. Telesail hori erosi eta programatzeko erabakia hartu duenak kalean egon beharko luke dagoeneko; jada ez dut pazientzirik beste ezer eskatzeko.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Argitaratzailea:
Manuel Larramendi Kultur
Bazkunaren Andoaingo
Udalerrri Biltzarra eta
Urnietako Iñistorra
Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:
Dr. Huizi kalea 15, 1-esk.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnietako egoitza:
San Juan Plaza, 9
20130, Urnieta
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Ekoizpena: erroitz@erroitz.com

Zuzendaria:
Jon Ander Ubeda.
Erredakzioa:
Ainhoa Gil, Jon Ander
Ubeda, Jon Unanue eta
Aitziber Salinas.

Diseinua:
Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
**Publizitate
Arduraduna:**
Fernanda Irazu.

Argazkilariak:
Xabier Ubeda.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: SVP S.L.
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:
Aitziber Arreseigor.
**Banaketa
arduraduna:**
Xabier Ubeda.

Banatzaileak:
Andoain:
Laida Jauregi,
Elixabet Isasi.
Urnietako:
Ander Balda,
Befiat Erkizia.

Agenda

MAIATZAREN 5ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Ikastaroak

- Andoain**
- **La Salle-Berrozpe** ikastetxeak deituta, Langileentzako formakuntza ikastaroak. Izena emateko: 943 590 557.
- **Fresadora CNC (GIBBS)**. Iraupena: 60 ordu, 08/05/06 - 20/06/06. Ordu-tegia: 17:30-20:30. Egunak: Astelehena, asteartea eta osteguna.
CNC prestaketa eta programaketa. Iraupena: 35 ordu, 22/05/06 - 08/06/06. Ordu-tegia: 17:00 - 20:30. Astelehene-tik ostegunera.
CNC prestaketa eta programaketa. Iraupena: 40 ordu, 22/05/06 - 08/06/06. Ordu-tegia: 17:30 - 20:30. Astelehene-tik ostegunera.

Odol emaileak

- Andoain**
- Maiatzak 9, asteartea
Anbulatorioa

Mendizaleak

- Andoain**
- Sorginen bideetatik
Ulibarri arana- Kruz de Alda (1120)-
Oteo- Antoñana
Maiatzak 7, igandea
- Andoain**
- **Urko- Kalamua, haur ibilaldia**
Maiatzak 14, igandea

Errezil

- **Erniopeko martxa**
Bi urtez behin Ernio mendiaren inguruan
egiten da zeharkaldia. Interesgarria.
Maiatzak 14, igandea

Irteera

- Urnietako**
- Aralarko San Miguclera eta Lekunberri-
rrira, Euskara Sailak antolatuta. Izen
ematea: Lekaion, maiatzaren 5a arte.
Maiatzak 7, igandea

Argazki ralia

- Urnietako**
- **Urnietako argazki ralia.** Gaiak egunean
bertan jakinaraziko dira.
Maiatzak 14, igandea. 09:00, Lekaio

Musika

- Andoain**
- **Francisco Fracaren** omenez.
Maiatzak 5, ostirala. 20:30, Bastero
- **Oskorriren The Pub Ibiltaria X.**
Nahi duen orok abestu eta musika
tresnaren bat jotzeko aukera izango
du. Bastero, ekitaldi aretoa
Maiatzak 6, larunbata. 20:30. 6 euro.

EPA-HHI

- Beterri-Buruntza**
- **Andoain, matrikulazio ordutegia**
10:00-12:00 / 17:00-19:00. Extrema-
dura, 11. Tel.: 943 30 40 21
- **Urnietako, matrikulazio ordutegia**
Ordutegia: 09:00-11:00. Lekaio Kul-
tur Etxea. Tel.: 943 00 90 97

Lehiaketa

- Andoain**
- Sanjuanak, kartel lehiaketa.
Epea: maiatzak 23, asteartea
Oinarriak: Bastero Kulturagunea

Bertsolaritza

- Andoain**
- **Ikasle gazteen** ikasturte amaierako
saioa. Beharrezkoa da gonbidapena.
Maiatzak 9, asteartea. 18:00, Bastero

Erakusketa

- Andoain**
- Zeppelin.
Maiatzak 6-ekainak 23

Eskubaloia

- Andoain**
- Leizaran taldearen partidak Allurralden:
Infantilak, Mut: Leizaran-Zarautz. 10:00
Jubenilak, Mut: Leizaran-Bergara. 11:30
Kadeteak, Nes: Leizaran-Elgoibar. 16:00
Jubenilak, Nes: Leizaran-Bergara. 17:30
Maiatzak 6, larunbata

Pilota

- Urnietako**
- Herri arteko txapelketa: **Urnietako-Ando-
ain.** Maiatzak 5, 19:00. Herriko pilo-
talekua. Sarrera doan
Kadeteak: **Jon Pagola-Mikel Garmendia-
/ Mikel Jauregi-Aitor Ulanga.**
Jubenilak: **Mikel Garaialde-Unai Legarreta-
Jon Escudero / Joxe Mari Sagaseta.**
Nagusiak: **Unai Ezeiza-Iñaki Zubillaga /
Oñatx Gonzalez-Aritz Rekalde.**
- Gipuzkoako alebin txapelketa. Maia-
tzak 6, larunbata. 16:00.
Urnietako 3 (**Aitor Pagola eta Aritz Liza-
so**)-Mundarro / Hernani 3-Urnietako 2
(**Julen Loitegi eta Ander Oiarbide**) / Ur-
nietako 4 (**Ruben Castaño eta Ander Goi-
koetxea**)-Gazteleku

LANA

IDAZKARIA URNIETAN

- **Deitzailea:** Urnietako Udala.
- **Ezaugarriak:** Lizentziatua /
4. Hizkuntza-eskakizuna /
Unibertsitateko lizentziatura.
- **Edukia:** Idazkari lanpostua
betetzeko oposaketa.
- **Epea:** 2006-05-08.
- **Info:** 943 556 208

2 ADMINISTRARI LAGUNTZAILE

- **Deitzailea:** Lasarte-Oria.
- **Ezaugarriak:** Eskola Gra-
duatua. 1. mailako Lanbide
Heziketa edo baliokidea. 2.
hizkuntza-eskakizuna.
- **Edukia:** Diruzaintza-Bilketa
alorrean 2 Administrari La-
guntzaile kontratatzeko opo-
sizio-lehiaketa.
- **Epea:** 2006-05-07.
- **Info:** 943 376 055

ADMINISTRARIA

- **Deitzailea:** Lasarte-Oria.
- **Ezaugarriak:** Goi-mailako
Batxilergoa, 2. mailako Lan-
bide Heziketa edo baliokidea.
2. hizkuntza-eskakizuna.
- **Edukia:** Idazkaritza Nagu-
sian, administrari-lanpostu
bat betetzeko lehiaketa.
- **Epea:** 2006-05-07.

EUSKALDUNA

- **Emakumezkoak, Allurralde**
Euskalduna-Mariño
Maiatzak 6, larunbata. 10:00
- **Kadete maila, Allurralde**
Euskalduna-Idiazabal
Maiatzak 6, larunbata. 11:45
- **Jubenil maila, Allurralde**
Euskalduna-Oiartzun
Maiatzak 6, larunbata. 15:30
- **Erregional maila, Allurralde**
Euskalduna-Hondarribi
Maiatzak 6, larunbata. 17:30

Astekariaren aldeko dirubilketa

- Bete txartela edo deitu 943 331 455
edo 943 300 732 zenbakietara
- Urnietako San Juan kaleko bulegoa
zabalik!! Ordu-tegia: 09:00-13:00
- Urnietar guztien laguntza behar dugu

Aiurri

Beterri-Buruntzako astekaria



Izen Abizenak
.....
Helbidea
Telefono zenbakia
Jaiotze urtea
Kontu Korronte zenbakia (20 euro, besterik ez)



AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI

Renta
2005
Errenta

Apirilaren 24tik ekainaren 26ra

902 100 040

www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

Zeu zara Gipuzkoaren motorra

Abian jartzen dugun egitasmo berri bakoitzaren atzean, erronka bakoitzaren atzean, pizten den ilusio bakoitzaren atzean, zu zaude. Zeu zarelako Gipuzkoaren motorra.



Gipuzkoako Foru Aldundia